

Basque Literature in Translation. Comparison of Different Translation Types in the Work by Bernardo Atxaga

Elizabete Manterola Agirrezabalaga

University of the Basque Country UPV/EHU, SPAIN

elizabete.manterola(a)ehu.es

ABSTRACT

This thesis aims to compile and analyze the translation of Basque Literature into other languages. As the production of Basque literature was rare up until the last few decades, the phenomenon of translating literary works into other languages is very recent. The objective of this research is to give a general perspective of what has been done so far.

The first part of the thesis is divided into four introductory chapters. After the general introduction, the second chapter takes a sociolinguistic approach to the Basque language and describes Basque literature in its minority and diglossic context. The theoretical framework in which the research is situated is introduced in the third chapter, which pays special attention to the various types of translation analyzed in depth in the latter chapters of the research, namely, self-translation, authorial collaboration and translation by a third translator, as well as direct and indirect translations. The last introductory chapter focuses on the description of the methodology used throughout the research, that is, the construction of a general catalogue and a corpus based on a case study.

The fifth chapter is based on the completion of the ELI Catalogue (*Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa*), which includes the bibliographic references of books translated from Basque into other languages. The catalogue is analyzed using diverse categories, such as authors, titles, genres, target languages, etc. Illustrative results are also presented in this general overview, such as the most frequently translated authors and books, and the most common target language (Spanish).

As the object of study is a diglossic literary system built up in a complex linguistic reality, various translating types were identified as a result of the analysis of the ELI Catalogue. The main hypothesis of this phase of the research is that each translation type will offer a different result. In order to compare them, a reduced corpus was built from twelve original works by Bernardo Atxaga (the most translated author according to Chapter 5) and their translations into seven target languages (Catalan, English, French, Galician, German, Italian and Spanish). The next chapters focus on the comparison of these texts in order to observe and describe the differences that exist between self-translation, authorial collaboration and translation made by a third translator into Spanish, as well as between the direct and indirect translations into the other target languages. The corpus is investigated at different levels: peritextual analysis, macrotextual analysis and microtextual analysis, which focuses on proper names and on colors.

The general hypothesis of the thesis was supported, as the analysis of the corpus showed that there are actually different norms in each language-pair, and that there are large differences between the Spanish translation and the translations into other target languages. The results

indicate that the diglossic and incomplete nature of Basque literature determines the form and image that it will take in other cultures.

KEYWORDS: authorial collaboration, Basque literature, Corpus-based Translation Studies, indirect translation, minority literatures, self-translation.

Completion of Thesis

Place: University of the Basque Country UPV/EHU, Spain

Year: 2012

Supervisor: Dr Ibon Uribarri Zenekorta

Original language: Basque

Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa

LABURPENA

Honako doktore-tesi honen helburua euskaratik beste hizkuntzetarako literatur itzulpenak aztertzea izan da. Literatur produkzioa nahiko urria izan denez azken hamarkadetara arte, euskaratik beste hizkuntzetarako itzulpen fenomeno nahiko gaztea dela esan behar da. Gure ikerketaren helburua orain arte egin denaren ikuspegi orokorra eskaintzea izan da.

Gure ikerketa lanaren lehen zatia hiru ataletan banatu dugu. Euskararen egoera soziolinguistikoaren berri ematea izan da lehenengo helburua, baita euskal literaturaren egoera deskribatzea ere, horren izaera gutxitua eta diglosikoa kontuan izanik. Hurrengo ataletan, berriz, gure ikerlana zein marko teorikoren baitan kokatu dugun azaldu dugu, eta arreta berezia eskaini diegu hurrengo kapituluetan aztertuko ditugun itzulpen mota ezberdinei (autoitzulpena, kolaborazioa eta kanpoko itzultzaile baten itzulpena, zein zuzeneko eta zeharkako itzulpenak). Hurrengo kapituluak, bestalde, tesian zehar baliatu dugun metodologiari erreparatu diegu, hots, katalogo orokor bat osatzeari eta corpusaren erabilpenari.

Bosgarren kapituluak ELI katalogoaren osaketan oinarritzen da, eta bertan euskaratik beste hizkuntzetara itzuliriko liburuen erreferentzia bibliografikoak jaso ditugu. Katalogoa hainbat ikuspegitatik aztertu dugu, hala nola autoreak, izenburuak, generoak, xede hizkuntzak eta abar. Emaitza interesgarriak lortu ditugu ikuspegi orokor honen bitartez; besteak beste, zein autore edo liburu itzuli den gehien, edo zein izan den xede hizkuntza nagusia (gaztelania).

Errealitate linguistiko konplexuan sorturiko literatur sistema diglosikoa denez gure aztergaia, itzulpen bide ezberdinak identifikatu ditugu ELI katalogoaren azterketan. Fase honetako gure hipotesi nagusia itzulpen mota bakoitzak emaitza ezberdina emango duela da. Horien arteko alderaketa egiteko asmoz, Bernardo Atxagaren jatorrizko 12 lan eta horien 7 xede hizkuntzetarako itzulpenak (alemana, frantsesa, galegoa, gaztelania, katalana, ingelesa eta italiara) biltzen dituen corpus mugatu bat osatu dugu jarraian, bera baita gehien itzuliriko idazlea katalogoko datuen arabera. Corpusean bilduriko testuen alderaketa egin dugu hurrengo ataletan, alderik ba ote den ikusteko gaztelaniarako autoitzulpen, idazle-itzultzaileen arteko kolaborazio eta kanpo itzultzaileen lanen artean, baita beste hizkuntzetarako zuzeneko eta zeharkako itzulpenen artean ere. Corpusaren alderaketa maila ezberdinetan egin dugu: paratestuak aztertuz, batetik, eta testuei maila makrotestuarean eta mikrotestuarean erreparatuz, bestetik. Azken maila horretan, izen bereziak eta koloreak izan ditugu aztergai.

Tesiaren hipotesi nagusia zuzena zela erakutsi digu corpusaren azterketak; hau da, hizkuntza pare bakoitzean arau ezberdinak daude indarrean, eta alde handia dago gaztelaniarako itzulpenen eta gainerako hizkuntzetara eginiko itzulpenen artean. Lorturiko ondorioen arabera, euskal literaturaren izaera diglosikoa eta ez osoak guztiz baldintzatzen du literatura horrek beste hizkuntza batzuetan hartuko duen forma eta irudia.

GAKO-HITZAK: Autoitzulpena, corpusetan oinarrituriko itzulpen ikasketak, euskal literatura, idazle-itzultzaileen elkarlana, literatura gutxiak, zeharkako itzulpena.